



**Arartekoaren ebazpena, 2010eko abuztuaren 25ekoa. Horren bidez, Balmasedako Udalari gomendatzen zaio espresuki eta arrazoiak emanaz ebatz dezala ibilgailu batean izandako kalteengatik jarri zen ondare erantzukizuneko erreklamazio bat.**

### Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat azaldu zuen erakunde honetan, Balmasedako Udalak ez baitzuen ebatzi 2007ko apirilaren 30ean beraren ibilgailuan sortutako kalteengatik egin zuen erreklamazioa. Lanen eremu batean trafikoko norabide aldaketak behar bezala seinaleztatuta eta argizatuta ez zeudelako gertatu ziren kalte horiek.

Pertsona horrek adierazi digunez, bere aseguru-etxearen bitartez erreklamazioa egin zuen, ibilgailuan izandako kalteengatik (2.695 euroko kalteak). Erantzunik jaso ez zuenez gero, 2009ko ekainaren 12an eta uztailaren 29an berriz erreklamatu zuen eta bere espedientearen egoeraren berri eskatu zuen, baina ez zuen emaitzarik lortu.

Erreklamazio haren tramitazioa zertan zen jakinarazteko eskatu zion Arartekoak udalari.

2. Hasierako informazio-eskaera horri erantzunez, alkateak adierazi zigun 2009ko ekainaren 12an aurkeztutako idazkia zela erreklamazioaz izan zuten lehen berria, baina ez zekitela aseguru-etxeak aurkeztutako erreklamazioaren berri.

Orduan, 2007ko uztailaren 11n egindako ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren kopia bat eskuratu zigun interesdunak. Erreklamazio hura gutun ziurtatuaren bidez entregatu zen postetxean eta bere senarraren izenean zegoen. Beraz, berriro gai horri buruzko informazioa eskatu genion udalari.

3. Balmasedako Udalak bidali zigun erantzunean adierazten denez, erreklamazio hura ezetsi egin zuten, administrazioaren isiltasunaz baliatuz: *“según prevé el artículo 142.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común que literalmente afirma que dicha acción prescribe al año de producido el hecho o el acto que motive la indemnización o de manifestarse su efecto lesivo”.*





Erreklamazioa kontuan hartuta, kexan adierazitakoa eta azaldu ditugun aurrekariak aztertu eta gero, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoetok helaraztea:

### Gogoetak

1. Kexan azaldutako gaia araututa dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, 139. artikuluan eta hurrengoetan; baita ere, ondare erantzukizunari dagokionez, Herri Administrazioen prozeduren Araudian (hori martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Herri-administrazioek ordaindu egin behar dizkiete herritarrei beren ondasun edo eskubideetan eragindako kalteak, betiere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jarduera on edo txarraren ondorioz sortu bada (139. artikulua).

Beraz, ondare erantzukizunagatiko erreklamazio baten aurrean, udalak argitu beharra dauka, legean xedatutako prozeduraren bitartez, ea halako kalte ekonomikorik eragin den bere ardurapeko zerbitzuak egitean.

2. Balmasedako Udalak bidali digun erantzunean, nahastu egiten dira eta oker erabiltzen dira administrazioaren isiltasunaren eta preskripzioaren irudiak, erreklamazioaren ezespena egintza bidez oinarritzeko asmoz.

**Administrazioaren isiltasuna** argi eta garbi herritarrentzako berme gisa zehaztuta dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean. Horrela, legeak hauxe xedatzen du zioen adierazpenean:

*“Legearen xedea ez da administrazioaren jardunik ezari izaera positiboa ematea, herritarrek administrazioa jotzen dutenean. Administrazioaren jardunik ezaren izaera positiboa berme bat da, legearen benetako xedea betetzen ez denean ezartzen dena. Legearen xedea da herritarrek administrazioaren berriazko erantzuna lortzea eta, batez ere, ezarritako epean lortzea. Administrazio-isiltasunak, positibo nahiz negatiboak, ez du izan behar jardunbide juridiko normala, berme bat baizik, herritarren eskubideak edukirik gabe uztea eragozteko, administrazioak bere eginkizunak modu eraginkorrean eta behar bezain laster betetzen ez dituztenean; izan ere, administrazioa eginkizun horiek betetzeko antolatzen zen.*”





Orduan, herritarrek eskaerak egitean, berriazko erantzuna jasotzeko eskubidea dute beti, horretarako ezarritako epean. Horrela, administrazioaren isiltasuna – positibo nahiz negatiboa – erabiltzen bada, ez dira betetzen administrazioari eman zaizkion eginkizunak. Administrazioaren isiltasuna ez da erabili behar administrazioen “eskubidea” balitz bezala, baizik eta herritarren berme gisa, baldin eta administrazioak bere egitekoa modu eraginkorrean bete ez badu. Horren ondorioz, esku hartzeko eskatu diguten kasu honetan gertatzen den bezalaxe, herritarrek eskubidea dute administrazioak beraien eskaerez duen iritzia eman dezan eta eskaera horiek ebatz ditzan, epez kanpo izanda ere; gainera, herritarrek, hautabide gisa, administrazio-isiltasunak berekin dakarren bermea betetz, bide judizialera jo dezakete, beren eskubideak aitortu diezazkieten. Administrazioak ezin du hautabide hori erreklamazioa ez bideratzeko aitzakia moduan erabili.

Horixe adierazten du legearen 43.3 artikulua, zera xedatzean: administrazio-isiltasunez ezestearen “ondorio bakarra” da interesdunei bidezkoa den administrazio-errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko aukera ematea. Beraz, udalak ezin du administrazio-isiltasuna arrazoitzat aipatu prozedura bukatutzat emateko.

3. Udalaren ondare-erantzukizuna erreklamatzeko egintza **preskribatzeari** dagokionez, lege horren 142.5 artikulua haxe ezartzen du hitzez hitz:

*“Nolanahi ere, **erreklamazioa egiteko eskubidearen preskripzioa urtebetegarrenean izango da, hain zuzen, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik urtebetera.**”*

Interesdunek 2007ko uztailaren 11n aurkeztu zuten ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, hau da, legean xedatutako epea amaitu baino askoz lehenago, izan ere, egintzak 2007ko apirilaren 30ean gertatu ziren. Hortaz, udal administrazio horrek arrazoiak emanez ebatzi beharra dauka ibilgailuan izandako kalteengatik ordainari buruzko erreklamazioa. Horrela, udalak baloratu egin behar ditu aurkeztu dizkieten alegazioak: hain zuzen, lanen eremu batean seinaleztatze eta argitatzeko nahikorik ez izateak eragin zuela kaltea; eremu hartan norabide-aldaketa dezente egin zirela eta aldaketa haiek sarbide murriztuko kale batean sartzea errazten zutela; kale hark ez zeukala debekatutako norabidea adierazten zuen seinalerik, izan ere, istripua gertatu zen egunaren biharamunean jarri zuten seinalea.





Horren gainean, udalak espedientea bideratu beharko du, aipatutako araudiak arautzen dituen prozeduren arabera, eta bereziki aipatu beharko ditu, hala badagokio, frogatze-lana burutzea eta interesdunari entzutea. Horretarako, epeekin kontuz jokatu beharko du, dagoeneko hiru urte baino gehiago igaro baitira erreklamazioa egin zenetik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**20/2010 GOMENDIOA, abuztuaren 25ekoa, Balmasedako Udalari egina**

Dagokion tramitazioa egin ondoren, espresuki eta arrazoiak emanaz ebatz dezala (...) jaunak, kexagilearen senarrak, bere jabetzako ibilgailuan izandako kalteengatik egin zuen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa.

